

2002/10/01eko **prentsa-oharra****ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)****2002ko abuztua**


ERAIKUNTZAREN KOSTUAK % 0,1 HANDITU ZIREN 2002KO ABUZTUAN

Datu horiekin, urte arteko hazkunde-tasa (2002ko abuztua, 2001eko abuztuarekin alderatuta) % 2,2koa izan da.

2002ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorraren balioak % 0,1 hazi ziren, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntzari (2002ko abuztua, 2001eko abuztuaren aldean) begiratuz gero, % 2,2koa izan da kostuen goratzea; aurreko abenduaren aldean, berriz, % 2,8 igo da tasa lehenengo zortzi hilabetean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia uztaileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Abuztuan, lehengaien kostuak % 0,2 igo ziren, eta lan-eskuaren kostuak, oster, bere horretan iraun du. Hala ere, urte arteko aldian, lan-eskuaren kostuak % 4,0ko igoera izan du; lehengaien kostuek, berriz, % 1,0koa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute abuztuan: kostuak areago hazi dira *obra zibila* azpisektorean (% 0,4), *eraikinak* azpisektorean

baino (% 0,1). Halako aldeak ageri dira, orobat, urte arteko bilakaera aztertuz gero: 2001eko abuztuaren gainean, % 0,8 tasa du *eraikinak* azpisektoreak, eta % 1,3koa *obra zibila* azpisektoreak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko abuztuan, hauek izan dituzte prezio-igoerarik handienak: *energia elektrikoa* (% 4,8), *karea, igeltsua eta eskaiola* (% 3,0) eta *petroliotik eratorriak* (% 2,8) arloek, besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenenak kontsumitutako produktuen artean ageri dira: *zementu artifiziala* (% 7,0), *makineria erabilirako osagarriak* (% 6,1), *metalezko bestelako gaiak* (% 4,5) eta *zementutik eratorritako gaiak* (% 2,4) arloetan, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO ABUZTUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,2	0,1	2,2	2,8
ERAIKINAK	119,5	0,1	2,1	2,6
OBRA ZIBILA	118,2	0,3	2,4	3,3
LEHENGAIEN KOSTUA	113,5	0,2	1,0	1,9
ERAIKINAK	114,0	0,1	0,8	1,6
OBRA ZIBILA	112,1	0,4	1,3	2,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---